

2. MERKATUAREN SEGMENTAZIOA / SEGMENTACIÓN DE MERCADO

Gure bezeroak aireportuetan atsedean hartu behar duten bidaiariak izango dira; horregatik asko izateko, gure eskaintza ahalik eta zabalena izan behar da

Gure bezeroen sexuak ez du garrantzirik izango. Adina aldetik, adinez nagusiak direnak izango dira gure bezero (adingabeek heldu batekin joan beharko dute; bestalde, oso arraroa da aiton-amonek hegazkinez bidaiatzea, orduan, adin ohikoena 18 eta 50 urte artekoa izango da.

Errenta baxuko pertsonak izango dira bereziki, nahiz eta logelak oso garestiak ez izan, aukera merkeagoak egongo dira, adibidez banku batean lo egitea.

Erosketa maiztasunaren aldetik, bezero oldarkorrek izango dira batez ere, aireportuetan logela bat alokatzean ez duzulako alde aurretik pentsatzen, normalean hegazkin bat galdu edo asko itxaron behar duzunean gertatzen delako.

Bezero hauek, gure ustez asko kontsumitzen dute eta oso ohikoak dira gure gizartean. Egin dugun galdetegia ikusiz, jende askok hegazkinez bidaiatzen du eta askotan aireportuan itxaron behar izaten dute denbora luzez.

Gure bezeroek plan B bat izan nahi dute aireportuan arazoak gertatzen badira edo, besterik gabe, ez badute prezio handiak ordaindu nahi gau bat hotel batean pasatzeagatik. Uste dute ez dutela luxuzko hotelik edo logelarik behar, atsedean hartzeko leku bat baino ez, oinarrizko beharrak asetzeko. Gure negozioan aukera handia ikusten dute, eta horrek arazo asko konpontzen dizkie.

Marketing berezia erabiliko dugu. Nahiz eta kostu gehiago egon, gure ustez salmentak handiagoak izango dira, gure bezeroei logela mota desberdinak aukeratzeko ahalmena emango diegulako. Gure ideia 3 logela mota izatea da. Hasteko logela individuala (pertsona bakarra, merkeena), bigarrenik logela bikoitza (bikoteentzako, 2 pertsona gehienez) eta azkenik logela VIP (garestiena izango da, baina abantailak izango ditu beste logelengan, 2 pertsona gehienez).

Esan dugunez, negozio hau hotel bat ordaintzeko dirua nahikoa ez duten pertsonen zuzenduta dago, gehienetan gau bat ere igaro behar ez dutenean. Horregatik, normalean gure zerbitzua ez dute errenta altua duten pertsonen erabiliko. Bestalde, gehien bidaiatzen duten pertsonak helduak direnez, horiek izango dira gure bezero ohikoena, lanagatik bidaiatzen duen jendea, turistak...

Hauek dira gure logela motak:

Logela individuala.



Logela Vip.



Logela Bikoitza.

